



TAILERRETAN IKASITAKO ERAKUSTEKO UNEA

Ikasturtean zehar izaten diren ikastaro desberdinetan eginiko eskulanak ikusi daitezke Ibarako Kultur Etxean >4

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Igandea
2010-07-04**

VIII. URTEA 2.043. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Jende ugari bildu zen herriko plazan Langostino Moto Festaren baitan antolatutako jokoak ikustera. E. EZEIZA

PLAZA MOTORZALEEN TOPAGUNE IZAN DA, BERRIZ ERE

IBARRA Zortzigarren urtea da Langostino Moto Kultur Elkarteak Moto Festa antolatzen duela herrian; gaurkoan bira egingo dute 6

Gazpatxo andaluziarra eta lekak herritarrentzat

TOLOSA 'Tolosako Azokak + KM 0' ekimenaren baitan Felix Belauzaran izan zen Trianguloan 5



Amarotzeko haurren dantza ikuskizuna. R. CALVO

Festen azken eguna Amarotz eta Asteasun

JAIK Gaur izango dituzte azken ekitaldiak; Larraitzen ere San Pedro eguna ospatuko dute 7

ERKINTZAKIA ZABALDU ERAKLEAK EZAZU
TOLOSALDEAN NEGOZIO IDEIA BERRIAK SORTZEN LAGUNTZEKO SUSTAPEN KANPAINA

100€ NEGOZIO IDEIAREN BIDERAGARRITASUNA DEFENDITZEAGATIK

500€ TOLOSALDEAN ENPRESA EKIMENA MARTXAN JARTZEKO

INFO
 943 654 501
www.tolosaldeagaratzen.net
 San Esteban 20
 20400 TOLOSA

AURKEZPEN EPEA:
 -Ekimenaren Teik Irailaren 30era edota aurrekontua agortu arte
 -Enpresa martxan jartzeko epea 2010eko Abenduaren 31an amaitzen da

K Komikia**Nando****Z Zurea da hitza**

San Joan Bezperan hainbat preso-en aldeko solidarioek *Dispertsioa* eta *Espetxe Politika* zioten pankartak bota zituzten sutara. Ondoren, suaren inguruan egon ziren preso-en aldeko banderolekin (argazkian ikusten den bezala). Ekimen honen bidez, Espainiar eta Frantziar estatuek aurrera daramaten espetxe politikak presoek eta bere ingurukoei suposatzen dien sufrimendua salatu nahi izan dute.

Mendekuan oinarritutako espetxe politika honek preso-en oinarritzko eskubideak urratu eta pertsona bezala suntsitzea du helburu. Horren adibide da Zornotzako *Gatza* presoak 30 urte daramatzakola espetxean, edo eta Lizartzako Konsuelo Agirrebarrena presoak Martuteneko espetxetik Espainiar estatuko espetxe batera urruntzea. Bideragabekeri guzti hauen aurrean lanean jarraituko

da Euskal presoak dagozken eskubideen jabe etxean izan arte. Herriarek ere gonbidatzen diegu Euskal preso-en aldeko ekimenean parte hartzera. Bestetik salatu nahi dugu Mikel Zalakain herritik urrun heriotzara eramane duen politika hiltzailea eta gure elkartasuna eta besarkadarik beroena helarazi nahi diegu bere senide eta lagunei.

Anoeta.



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitzza.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA

www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

G Gutunak

Garbiñe Arrieta hil da Uruguaien

Garbiñe deskribatzen jarrita, solidarioa eta hurkoarentzako jarduten zuen energiagaz betetako emakumea zela esango nuke, izaera indartsukoa izanagatik xume agertzen zena bere egintzetan.

Bere usteak eta ezinegonak burura emateko bide hobereena berriroz moja egitea zela iruditu zitzaion. Modu horretan, orain dela dozenaka urte Ameriketara jo zuen, eta bertan Plata ibaiaren bi aldeetan egin zuen bizia, lehenbizi Argentinan eta ondoren Uruguaien.

Eta Uruguaien, bere euskal izanari batere arrotz ez zitzaion errealitate batekin egin zuen topo. Munduko hamaika bazterretan bezalaxe, lurralde hartan euskal errefuxiatuak beren bizitza egiten zuten espainiar Estatuaren atzaparretatik kurrin.

Garbiñek, pertsona solidarioa izanik, lehen momentutik bere babesa eta ahatsa eskaini zien, baita momenturik gogorrenetan ere, 1992an 30 euskal errefuxiatu eta beren lagunak razia polizial hartan atxilotuak izan zirenean nahiz bi urte beranduago, 1994ko abuztuak 24 beltz hartan, behin 3 euskal errefuxiatuen estradizioa onartuta, Uruguaiako poliziak Filtroko Sarraskia bezala ezagutzen dena eragin zutenean ere.

Gertakizun haiek gogoratu eta salatzeke, martxa batek Montevideoko kaleak zeharkatzen ditu urtero. Garbiñe hantxe izaten zen estradizioa ukatu zieten eta bertan bizitzen jarraitzen duten errefuxiatuekin batera. Baita sarraski hartan Fernando semea galdu zuen Norma Morroni lagunduz ere.

Garbiñe eta Norma bezalako pertsonak ihes egiten die konbentzionalismoei. Beren eguneroko jardunarekin erakusten dute zapalduetako maitasuna eta egitekoa. Itxuraz, politikatik aldentu egiten dira, baina praktikan benetako politikaren funtsa hurbiltzen dira. A ze diferentzia hitz-jario errazeko hamaika iraultzaile ustelkin, hitz handietako hitzaldiak sutsuen artean garai bateko iheslari politiko zirenak, egungo terroristak alegia, salatu eta behatzarekin seinaltatzen dituzten horiekin alderatuta!!

Baina ez litzake juxtua izango Garbiñe euskal errefuxiatuekin solidario zenez moja huts bat bezalago goratuko bagenu. Bere lanak harago zihozten eta eguneroko ahulenei laguntzen igarotzen

zuen: IHESA zuten emakumeak, txiroak, beharra zuen orok Garbiñeren berotasuna jasotzen zuen... bere izateko arrazoia besteei laguntzea baitzen.

Eta beraz akordatzeko garelara, ezin ahaztu bera inguratzen zuten guztiez: euskal errefuxiatuak, Norma, beraien lagunarte zabalak. Bertan ohitura den haragi erre bikain bat aitzakiatzat hartuta, mahaia- ren bueltan jator eta pozik, hizketan imajinatzen dugu konpainia onean. Haiek dira, Euskal Herriko senideekin batera, gehien faltan botako dutenak.

Garbiñe joan zaigu, pertsona xume eta eskuzabal bat.

Jon Mintegiaga Oiarbide. 'El Filtro, memorias de los refugiados vascos' liburua eragilea.

Udal gastuei doako ekarpena

Aurrekoan jakin genuen Ibarroko Udalak halako ikerketa bat egitea enkargatu diola Betean auditoria enpresari udal gastuetan nola aurreztu jakin ahal izateko. Esan beharrik ez dago ikerketa hau egitea ez dela doakoa, hau dela eta gure ekarpena egin nahi diogu ikerketari, doako ekarpena.

Kanpotik begiratuta eta bat-batean botatzeko zinegotzien soldatetan aurrezteak izan beharko luke aurreneko pausua. Horretarako honako irizpide hau jarraitu beharko litzatekeela iruditzen zaigu: Udaltzatea ez da negozio bat, ez da lau urtetan zehar hilabetean behin behatza altxatu eta poltsikoa betetzeko, horregatik, udaletxetik soldata jasotzeko erabateko dedikazioa eskaini beharko litzatekeela iruditzen zaigu, hau da, bertan lan egin. Guk dakigula alkatea da erabateko dedikazioa eskaintzen dion bakarra.

Gainera alkate izan aurretik jasotzen zuten soldata berdina jaso beharko luke alkateak, eta ez gaur egun jasotzen duen dirutza.

Zinegotziek beraz, ez lukete soldatarik jaso beharko, nahiz eta jubilatuta egon eta egun guztia udaltxean pasatu. Jubilatuta dagoenak bere pentsioa jasotzen baitu eta udaletxetik kobratzeak bi soldata jasotzea suposatzen du, hau ez litzateke etikoa izango eta herritarrei iruzur egitea izango litzateke.

Bestalde, logikoa ez dena eta diru asko kostatzen dena, komisiotara joateagatik ordainsaria jasotzea da. Hori lotsagarria da! Inork ez ditu zinegotziak hauteskuntetara aurkeztera behartzen eta hauteskuntetara aukeratua izateak

lan bat dakar berarekin, herriaren alde lan egitea, bai komisiotetan, bileretan, batzarretan... eta hau dena *sin animo de lucro*. Beraz, herriarentzako lana egiteagatik kobratu nahi duena, hobe etxean geratzen bada!

Soldatetan aurrezteak ez da nahikoa eta alferrikako gastuak ekiditea ezinbestekoa da ekonomia saneatu bat izateko. Tamalez, ugari- tu egin dira gastu hauek azkeneko legeingintzaldihonetan, atzerrira bidaiak asko ugari dira, segurtasun kamerak jartzea eta beraien mantenua, TAO sistemaren hileroko 6.000 euroko gastua, herriko festak antolatzeko enpresa bat azpikontratatzeko enpresa da azpikontratatzeko kultur teknikariak aise antolatu ditzakeenean, udal batzarretarako itzultzailearen postua... zerrenda handiagoko egin genezake, baina esanguratsuenak besterik ez genituen aipatu nahi.

Amaitzeko, esan nahi dugu Udal gastuak kontrolatzeko borondatea edukitzea dela garrantzitsua, zentimorik ikusi gabe herriarentzat lan egiteko borondatea eta gastu handiegitan sartu gabe, daukagun gutxiari etekinik handiena aterata aurrera ateratzeko borondatea. Gurea ez den diru batez hitzketan ari garelako eta errespon- sabilitate handia eskatzen duelako.

Gure ekarpenak kontutan edukiko dituzuela espero dugula esan nahiko genuke, baina badakigu zuentzat, soldatapan eta herriko errealitatea ezagutu gabe egindako ikerketa manipulatu batek gehiago balio duela gure esandakoa baino, ikusi nahi ez duena baino itsuagorik ez dagoelako.

Hanot Karrera Amondarain. Udal Hautetsi Independentista. Ibarra.

Euskal musika doinuak; Tolosan 35 gazte herria alaitzen goizetik

Pasa den igandean ez zebilen inor kalean, hilik zegoela zirudien, baina halako batean nire belarrietara musika doinu alaiak iritsi ziren eta han ikusi nituen 35 gazte txalapar- ta, alboka, dultzaina, trikitia eta biolina jotzen eta batzuk dantzatzen, hura zen giroa eta martxa zamak- tena.

Gehienak ingurukoak ziren baina iparraldetik, Arabatik eta Bizkaitik ere zetozela adierazi zidaten. Guztia antolatzen Tolosako Giroarte dultzaina taldea esan adierazi zidan taldekide batek.

Gazte guzti hauek ez zuten par- randa handiegia egingo bezperan eta jo zituzten abesti zoragarr- i haiek behar den bezala jotzeko ordu asko emango zituzten en-

saiatzen. Zorionak eta eskerrak asko.

Joxe Mari. Tolosa.

Eskerrak emateko

Ekainaren 26a, larunbata, Bonberenearen etorkizunaren erabakia hartzeko lehen pausua izan zen. Kalejira handia izan zen oso, jende mordoak parte hartu zuen, eta ez kolektiboak bakarrik, baita kaletik zihon jendea ere. Eskerrak eman nahi dizkiegu pertsona horiei, kalejiran parte hartu zuten guztiei, Mulambo, dantza afrikarreko ki- deak, dultzainero taldeak, txaran-

garen parte izan zirenak, erraldoi eta buruhandien konpartsa, La- ket... beraien laguntzarik gabe, ka- lejira hau ez zen posible izango. Kalejiran ere pertsona ugari izan zen, beraiek asko gozatu zuten, baina baita guk ere, hainbeste jende- dek guk antolatutako gauza batez gozatu izana, eta gure alde dauden hainbeste pertsona edukitzea. Es- kerrak eman nahi dizkiegu hauei ere, guretzako oso garrantzitsua baita. Kalejiran esan bezala, BONBERENE BIZIRIK! IZAN PI- ROMANO ETA ZABALDU SUA!!

Bonberenea. Tolosa.



Jende ugari bildu zen pasa den larunbatean Bonbereneak antolatutako aldarrikapen kalejirara. INIGO TERRADILLOS-ASIER/IMAZ

Gidariak behar dira dokumentazioa eta baliak banatzeko. Postu finakoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.


610-71 97 82

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenuetarako langileak behar dira. Lanpostu finakoak.

600-97 74 95


Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako. Postu finakoak. Lanaldi jarraia.

607-25 42 40



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Sei tailerretan egindako lanak topa daitezke erakusketan. I. TERRADILLOS



Pintura tailerretan, koadroak ez ezik, bestelako gauzak ere margotu dituzte. I. T.



Baserritar jantziak egiten ere ikasi ahal izan dute tailerretako batean. I. T.

Eskulanak artelanen pare

Ibarra » Benito Izagirre kultur etxean ikusgai daude tailerretako ikasleek egindako lanak; 09:30etik 14:00etara dago zabalik erakusketa.

ESTI EZEIZA

Arte galeriak edo erakusketak bisitatzeko gero, gehienetan artistek egindako lanak aurkitu ditzakegu. Hauek gainera, izen handikoak izaten dira, edo ezagunak. Gai horietan ez baitute beraien lanak jendaurrean erakusteko aukera askorik izaten. Oraingo honetan berriz, Ibarako Kultur Etxean, etxeko andre, harakin, zerbitzari, erizain nahiz gidariek egindako artelanak aurki ditzakegu. Bertan, ikusgai baitago Udalak eskainitako tailerretan, ikasturtean zehar egindako lanen erakusketa.

Urriaren hasi ziren eskolekin, eta hilabete hauetan hainbat lan egin

dituzte. Hala, ohi bezala, iritsi da ikasitako erakusteko garaia. Eraberritutako altzariak, mantelak, koadroak, margotutako platerak, baserritar jantziak... aurkitu daitezke bertan.

Erakusketa datorren aste gutxian zehar egongo da ikusgai. Hala ere, goizetan bakarrik egongo da zabalik, Kultur Etxeak udako ordutegia baitu jada. Honenbestez, 09:30etik 14:00etara egongo da zabalik.

2009-2010 ikasturtean, zazpi tailer edo ikastaro izan dira Kultur Etxean: sevillanena, egur taila, ehoziariak, errestituzioa, masajea, pintura eta eskulanena. Hauen

iraupena ezberdina izan da, batzuk astean behinekoak baitziren eta besteak bikoak.

Urte asko daramatzate Benito Izagirre Kultur Etxean horrelako ikastaroak eskaintzen. Gainera, bertako ikasleek azaldukoaren arabera, gehienak fidelak dira, eta behin hasten direnean, urte askotan jarraitzen dute. Oro har, 15-20 laguneko taldeetan banatuta daude. Izan ere, kopuruaren arabera, talde gehiago edo gutxiago egiten dituzte, eta ordutegia ere egokitu.

Tailer irekiak dira, eta arlo bakoitzean, gehienetan, ikasleak berak proposatzen zer egin nahi duen. Horrela, irakasleak jarraitzen bat ematen dio, eta egin nahi duen hori lortzen lagundu.

Baina, gauza ez da eskulanak egitea bakarrik. Ikasleen esanetan, ikastaroek, lagunak egiteko eta hizketalditxoak mantentzeko ere

balio dute, «horrela, herriko jendea hobeto ezagutzeko aukera ere badaukagu» diote.

Ikasle gehienak ibartarrak dira, baina inguruko herrietatik ere joaten dira zenbait lagun, hauetan, horrelako eskaintzarik ez dutelako. Adinari dagokionez berriz, gehienak helduak dira, nahiz eta zenbait ikastarotan gero eta gazte gehiago animatzen den.

Hurrengo ikasturteari begira

Udan sartu besterik egin ez bagara ere, Ibarako Kultur Etxean argi dute, datorren ikasturtean ere hainbat tailer izango direla. Bertako arduradunaren hitzetan, «ziurrenik, aurtengo berdinak izango dira, hauek nahiko finkatuta baitaude». Dena den, izena ematen hasteko itxaron beharra dago, irailan irekiko baitute horretarako epea.

San Fermin jaien baitan, Leitza eta Aresoko kirolariak lehia ariko dira

Herri kirolak » Harri jasotzaileak, aizkolariak eta ingude altzatzailak ikusi ahal izango dira, besteak beste.

ERREDAKZIOA

Iruñean, Sanferminen baitan, herri kirol jaialdi ugari izango dira, eta tartean, eskualdeko kirolariak ariko dira. Alde batetik, Nafarroako herri-jasotze txapelketa jokatu da hilaren 8an, eta bertan ariko da Leitza Josetxo Urrutia. Egun berean, Nafarroako 3. Mailako Aizkora Txapelketa kanporaketa jokatu da. Hemen, garaipearen bila joango dira Asier Pellejero aresoarra eta Diego Riaño leizarra.

Hilaren 9an, saioen artean, aizkora erakustaldia izango da, eta bertan, bi leiztar aurrez aurre: Arkaitz Olano eta Ruben Saralegi. Azkenik, uztailaren 10ean, Nafarroako Ingude Altzatzetxe txapelketa jokatu da, eta bertan lehiatuko da berriro Urrutia.

☎ Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baierain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutz Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosaldeko bus: 943 650621

Leiztaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Lurrarmendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

ASIER IMAZ

Felix Belaunzarane azokaren bezperan aipatu zuen bezala, larunbatero altxor bat daukagu Tolosan. Iriarte Jate-txeko sukaldaria azoka osoari buruz ari zen hizketan, dudarik gabe, baina benetan altxor bilaibili zenik ere izan zen atzokoan. Eta kasu hauetan gertatzen den bezala, dabilenak ibilian aurkitu egiten du.

Sei gazteren egunak bizkarrean zeramatzen bi emakumek, euren bizitzan lehen aldiz ikusi zuten atzoko azokako altxorra, trufa alegia: «Usaindu al ditzakegu?» batek; «Ez dakit usainik edukiko duten baina hartu lasai» saltzaileak; «Txakurrekin aurkitzen omen dituzte» besteak; «Hauek ere horrela aurkituak dira» berriro saltzaileak; «Zenbatean saltzen dituzu?» lehenak; «Ez dakit ziur» saltzaileak erdi lotsaturik.

Sukaldaria 'fan' eta guzti

Une horretan, KM O ekimeneko protagonista agertu zen Maria Luisa Garmendia anoetarraren postuan, bere bata txuri eta guzti. Iriarte Jate-txeko laguntzailea ondoan zuela, Felix Belaunzarane begiak trufa platerera joan ziren: «Gazta xehatua bezala arrautzari gainetik botatzeko edo tortilla eder bat egiteko erabil daitezke».

Ibarrako Eluska jate-txeko Olanok ere gauza bera aipatu zuen hamar minutu lehenago, postu eta perretxiku berdinaren aurrean. Saltzaileak buruarekin baietz zioen eta inguruan begira zeudenez, horrenbeste jende erakartzen duen produktu horren zaporea nolakoa izango ote den galdetu zioten euren buruei. «Lehen batek, 28 gramo eraman ditu, 28 euro ordainduta», onartu zuen saltzaileak.

Gramo batek euro bat balio baldin badu, pentsa kilo batek zenbat balio duen. «...», 1.000 euro! Altxorra!



Auzolanera etorritako mundutarrek, Tolosako azoka gertutik ezagutzeko aukera izan zuten atzokoan. A. IMAZ

Larunbateroko azoken garrantzia azpimarratzeko, atzokoan Felix Belaunzarane sukaldaria eta bere laguntzailea etorri ziren Tolosara. Sukaldea Triangelua plazan jarri zitzaizen eta bertan prestatua dohainik banatu zuten.

Trufak eta guzti

Lanera! Felix Belaunzarane herriarregana hurbildu zen trufak atzean utzita. Berrobitik etorritako baserriarrei, euren postuan, lekak erosi zitzen.

Aurrez bildutako guztiarekin, Iriarte Jate-txeko bi sukaldariak Triangelua plazara abiatu ziren. Bertan zuten zain Tolosako udalerekin jarritako sukaldea, Udako Turismo Bulegoaren ondoan.

Tolosako Azokak + KM O ekimenaren helburua, inguruko sukaldariak hilean behin Tolosara ekaritzea da: Azokan erosketak egin, denen aurrean plater ederrak prestatu eta ondoren, dohainik, herritarren txanda. Emaitzak ikusi-

sita, hutsik egiten ez duen errezeta da.

Felix Belaunzarane, lehenik gazpatxo andaluziarra prestatu zuen. Hotza. Plastikozko txupito baso batzuetan edan zuten herriarrek. Jendearen iritziari jarraion eginez gero, ona zegoen. Errezeta zein zen galdetu zuenik ere izan zen. Bien bitartean, eskerak emanaz sukaldariak lanean jarraitu zuten, lekak urdaiazpikoa-ekin prestatzen.

Bat lanean ari denean eta jendea inguruan begira duenean, edozer gauza gerta daiteke. Hori ongi ikusi zuen berrobitarrak atzokoan. Lekekin amaitzen ari zenean, oi-
hutzuk entzun ziren Triangelua plazan: «Begara, Euskal Herriko sukaldariak guztiak dago hor».

Bainean lurrunik edo entzundako loreek, Felixen aurpegiko kolorealdatu zuten.

Hortik aurrera, umore onean baina presiopean lan egitea tokatu zitzaion Belaunzarani, fan edo jarraitzaile koadrila bat inguruan eduki baitzuen sukaldariak. Hori bai, hauek ere gazpatxoari nota ona jarri zioten.

Tolosako azokan altxor baten bilaibili ondoren, asko aurkituta etxeratzea ere ez dago batere gaizki. Hori bai, trufek itxaron egin beharko dute.

Azokarako eguraldi aproposak giro ederra jarri du azokan

Tolosa » Ibarrako piparrak euren txokoa egiten hasi dira postuetan; sendabelarrak ere ez dira falta.

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguneko eguraldiak asko lagundu zuen giro ona sortzen. Ez zuen bero handiegirik egiten, eta giroa ez zegoen hondartzarako, beraz, guztiz aproposa Zerkausiatik bueltaxka egiteko.

Eskaintza oso zabala izan genuen; dagoeneko Ibarrako piparrak beraie tokia hartu dute mahaietan, eta hauekin, lekak, tomateak, azelgak eta mota guztiak azak beste artean. Perretxiko zerrenda ere ez zen makala izan. Onddoak, gibelurdinak, ziza horiak eta gamuzak ikusi ahal izan genituen mahaietan, eta dirudieenez, oraindik ere iraungo dute gure artean.

Berdura plazako apaingarriko landareen saltzaileek ahalegin handia egin zutela nabaritu zen atzo. Denboraldiko landare asko eramán zuten. Sendabelarren zerrenda ere azpimarratzekoa izan zen.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA Merk. Gares.

Landareak

Alegria	1,50	2,00
Menta	1,50	6,00
Zainzuria	2,80	-
Berbena	3,00	-
Zilantroa	1,50	-

BERTAKO PRODUKTUAK

Perretxikoak

Onddoak	30,00	-
Ziza horia	20,00	-
Gibelurdina	30,00	-
Senderuela	20,00	-
Zizak	10,00	-

Fruta

Kivia	3,50	-
Errezil sagarra	2,00	4,00
Urria	2,00	-
Intxaurra	2,50	4,00

Barazkiak (kiloa)

Tipula berria	1,50	-
Tomatea	3,25	4,00
Ilarrak	10,00	12,00
Bainak	3,00	4,00
Patata berria	1,50	2,00
Tolosako babarrunak	10,00	12,00

Gaztak

Gazta berria	17,00	-
Ardigazta	14,00	24,00
Behigazta	8,00	9,00
Ardi-Behigazta	11,00	-

PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Barazkiak (kiloa)

Kalabaza	1,60	3,04
Dilistak (lentejak)	2,40	-
Arroza	1,90	2,00
Azenarioa	2,00	2,50



Maria Luisa Garmendia anoetarrak trufak eraman zituen azokara. Iriarte Jate-txeko sukaldariak lanean aritu ziren 'KM O' ekimenaren baitan. A. IMAZ



Euriak ez du ito motorzaleen festa

Ibarra » Langostino Moto Kultur elkarteak antolatutako bilkuran eguraldiak lagundu ez bazuen ere jende ugari bildu zen atzo.

ERREDAKZIOA

Harley Davidsonak, BMWak, Yamahak, eta beste hainbat markatako motorren bilgune izan zen atzo Ibarra. Eguerdian hasi zen Langostino Moto Kultur Elkarteak antolatutako jaia, eta motorzale ugari bildu ziren bertan.

Eguerdian, 14:00ak aldera hasi ziren iristen lehen parte-hartzaileak. Hauek izena ematen zuten, eta besta izarretako hoteletan bezala, kolore biziko eskumuturrekoak jarritzen zieten, «dena barne» zutela adierazteko.

Arratsaldean, 70 lagun inguruk eman zuten izena, baina antolatzaileen arabera, jende gehiago heltzekoa zen gauean. Gehienak ingurukoak baldin baziren ere, herrialde Katalanetako kostaldetik, Galiziatik eta penintsulako beste hainbat ingurutatik ere hurbildu zen jendea. Aipatzekoa, tartean, galestar bat ere bazen.

Koadrila bakoitzak bere aldetik bazkaldu zuten eta arratsaldean, jokoak egin zituzten. Euripean egin behar izan zituzten hauek, izan ere, arratsalde osoan, euri langarra ez zen gelditu. Hasteko, gidari bakoitzak errail batean jarri eta ibilbi-

detxoa nork mantsoago egin jokatuz zuten. Motorrak duen pisuarekin zaila da hau, eta are gehiago, hankak lurtean jarri gabe. Launka eta hirunka egin zituzten kanporaketak, eta hauetako irabazleak, finalean lehiatu ziren. Honen ondotik, bigarrena. Hemen, garagardo kupela motorraren aurreko gurpilarekin bultzatzea behar zuten. Baina, kupela ezin zuten bakoitzaren errailetatik ateratu. Hau gertatuz gero, lehiaketatik at, geratzen zen parte-hartzailea. Azkenik, ohiko hirugarren jokoa. Honetan, motorrak atzeko aldean zihoan, zintzilik zegoen saltxitxari hozkada egin behar zuten.

Jokoen ostean, profesional baten erakustaldia izan zuten. Motorraren akrobaziak egiten artista den Andre Colombok ikuskizun bikaina eskaini baitzuen Euskal Herria kalean.

Gaur goizean, bira laburra baina berezia

Gaur goizean egingo dituzte Moto Festako azken ekitaldiak. Hasteko goizean, 09:00ak aldera gosalduko dute. Jarraian, 10:00ak aldera motorgaineraigo, eta bira bat ematera



Arratsaldean, parte-hartzaileak joko ezberdinetan lehiatu aritu ziren; tartean, ahalik eta mantsoen joatean. E. EZEIZA

abiatuko dira. Gaurkoa gainera laburra baina berezia izango da. Ibarrratik abiatu, eta Nafarroa alde-rantz bideratuko dira. Leitzara igoko dira, handik Lekunberrira, eta gero, Betelu aldetik, Lizartatik, Tolosa aldera etorriko dira.

Tolosan irudi berezia ikusteko aukera izango da. Bertako kaleetatik bueltatxo bat eman ostean, Alde Zaharra eta Trianguloa plaza banatzen dituen arkupeetik igaro ondoren, denek elkarrekin, Trianguloa plazan hamaiketako egingo dute. Aurreikuspenen arabera, 11:30ak aldera iritsiko dira bertara. Amaizteko, berriro Ibarra itzuliko dira, bapoz bazkaltzeko.



Garagardo kupelari bultzatzea ere aritu behar izan ziren atzo. E. EZEIZA



Paella erraldoiaren bueltan, albizurtarrak

ALBIZTUR » Hirugarren aldiz, paella jatea egin zuten atzo Albizturren. 130 lagun inguru elkartu ziren Bizkor guraso elkarteak antolatutako ekitaldian. Pilotalekuan jarri zituzten mahaiak, eta bi paella erraldoi sukaldatu zituen Karmen Otategi eta bere laguntzaileek. Bazkalostean, eguna borobiltzeko kantuan aritu ziren karaokearekin eta jokoak egin zituzten, guraso eta haurren artean. Antolatzaileak gustura agertu ziren jendearen erantzunarekin eta parte-hartzaileekin. E. EZEIZA



Perkusioaren erritmorik, Koadrila Egunean

ZIZURKIL » Atzo Zizurkilera hurbilduz gero, edonork pentsatuko zuen, herriko jaiak zirela. Izan ere, plaza eta kaleak, kolore guztietako kamisetek alaitzen zuten. Urtero bezala, Koadrila Eguna ospatu zuten atzo. Pasa plaza bildu ziren gazte eta horren gazteak ez direnak bazkaltzeko. Arratsaldean beriz, jokoak egin zituzten, eta azkenik, Mulambo perkusio taldearekin tabernaz taberna, kalejira egin zuten. Egunari amaiera batzuk herriak eman zitoten, beste batzuk beriz, Asteasura bideratu ziren. E. EZEIZA



Amarotzeko haurrek dantza ikuskizuna eskaini zuten piratez jantzita zeudela. R. CALVO



Jolasak eta puzgarriak ere izan zituzten auzoan. R. CALVO



Koadrila asko animatu ziren bakailao lehiaketan parte hartzera. R. CALVO



Auzoen arteko futbol txapelketa izan zuten atzo goizean Asteasun. E. EZEIZA

Giro onean bukatuko dituzte jaiak

Jaiak » Asteasun San Pedro jai luzeak amaituko dituzte gaur, eta Amarotz auzoan ere ekitaldiz betetako egunean esango diete agur jai egunei.

ERREDAKZIOA

Gaur bukatuko dira Asteasuko San Pedro jai luzeak. Ostiraleko Koadrilen Egunaren ondotik, atzokoa, egun lasaiagoa izan zuten eta kirola izan zen protagonista, gainera. Goizean Asteasuko auzoen arteko futbol torneoa izan zuten. Kalea, Elizmendi, Goibarra eta Moraleja Berria taldeak aritu ziren lehian eta giro ederra sortu zen partida eta partida artean.

Futbol partidekin batera musa eta txintxon txapelketak ere egin zituzten. Arratsaldean, aldiz, zezen txiki eta poney-ak ibili ziren herrian haurren gozamenarako eta pala eta pilotak partidak ere izan ziren. Eguna Inde Kitxen eta Esne Beltza taldeen kontzertuekin amaitu zuten.

Amarotzen ere jai giroan

Amarotzen ere gaur bukatuko dituzte jaiak, nahiz eta motzagoak izan diren, ostiralean hasi baitzi-

ren. Atzo goizean txikiak izan ziren protagonista. Puzgarri ugari izan zituzten eta baita jolas ugari ere.

Goizean Amarozko Txirrindulari Proba ere izan zuten eta hau amaitzerakoan Diana ere izan zen auzoko Konpon Ezinak taldearen eskutik.

Urtero egiten den fatxada eta balkoi loratuen lehiaketa ere orduan hasi zen, nahiz eta gaur banatuko dituztensariak. Haurrak puzgarrietatik atera ezinik egon ziren gurasoak auzoko haurren dantza ikuskizunera eramateko. Lehenago, dena den, helduenak lanean hasiak ziren, bakailao lehiaketarako prestatzen hasiak baitziren.

Bazkaldu ondoren XII. Antzerki Astearen baitan Hip Hop ikuskizuna eta Jon Magik magoa ikusteko aukera ere izan zen eta baita *De Bourbon a Broadway* jazz emanaldia ere. Bukatzeko auzo afaria eta Dj Tomson izan zituzten.

» GAURKO EGITARAUAK

Asteasuko San Pedro jaiak

- **11:00.** Esku pilota eskolako txapelketako finala. Alebinak: Ioritz Maioza eta Julen Aizpuru. Kadeteak: Mujika eta Elustondo, Labaka eta Iruetagoienaren aurka. Jubenilak: Urbietak eta Zinkunegi, Urbietak II eta Otaegiren aurka.
- **Ondoren** sagardo dastatzea.
- **18:00.** Herri kirolak: Asteasuko taldeen arteko lehia.
- **Ondoren** Laket taldea. (23:00etan berriz ere).

Amarotzeko jaiak

- **08:00.** Garbiketa Betikoak taldearekin.

- **09:30.** Iurreko Andre Mari elizan meza auzoko hildakoen alde.
- **09:30.** Diana Tolosako txistulari-ekin.
- **11:00.** Erromeria. San Blas ermitatik kalejiran jaitsiko dira. Amaro-zko Dantza Taldearen eta Amaro-zko Dantzari Txikien emanaldia.
- **12:00.** Toka txapelketa.
- **13:30.** Fatxada eta balkoi loratuen lehiaketako sari banaketa.
- **14:30.** Auzoko bazkaria Amaro-zko txarangarekin.

- **18:00.** Antzerkia (XII. Antzerki Astea). David Batlo + Tefo & Andu. Ondoren Nany Gogomoren *Jujuruja* (19:00ak inguruan).
- **19:30.** Aurrezkua.
- **20:00.** Sardina erreak, sagardoa eta musika Zelaia anaiekin.

San Pedro eguneko ospakizuna Larraitzen

- **12:30.** Meza nagusia; ondoren hamaiketako eta trikitaliak. Trikitixa doinuak iluntzerarte.

Iragarki laburrak

SALGAI

- **Etxebizita.** Tolosako Berazubi auzoan etxebizitza salgai. 4. solairua da, igogailua du eta sotoa ere badu. Gela guztiak kanpoaldera. Interesatuak deitu 679-44 05 27 telefono zenbakira.

www.berazubi.com - 4. Solairu Herriko proiektua, etxebizitzarako zure eskura

Osatu'la hartu dit egunero'ko erretiradak bertan Herriko Plaza, egunero garbitatuta, olio, hegizkoak, margak, laginak, ardoak, gitarra... Baita erretirada bakoitza bakoitzaren.

26,75 €
Lortu: 100001
Datuak: 100001
Aholkari: 0506
4 produktua

37,45 €
Lortu: 200001
Aholkari: 0506
21-048 12/1000

Berazubi produktua erretirada hartu'ko txapelketa dituzte Herriko Plaza.

www.berazubi.com
www.berazubi.com



23°
14°

GOIZA OSKARBI
ARRATS. OSKARBI
BEROENA 24°
HOTZENA 13°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Jaiak

- **Asteasu.** San Pedro jaiak: pilota jaialdia, sagardo dastaketa sardina eta txorizorekin, herri Kirolak herriko gazteen artean eta berbera Laket taldearekin.
- **Abaltzisketa.** San Pedro eguneko ospakizuna Larraitzen: 12:30etan meza nagusia; ondoren hamaiketako eta trikitilariak.
- **Tolosa.** Amartzeko jaien bukara: 08:00eta garbiketa Betikoak taldearekin; 09:30ean lurreko Andre Mari elizan meza auzoko hildakoen alde; 09:30ean diana Tolosako Txistulariekin; 11:00etan erromeria; Amartzeko dantzarien emanaldia; 11:00etan Amartzeko Artisau eta Eskularen erakusketak; 12:00etan Toka txapelketa; 13:30ean fatxada eta balkoi loratuen lehiaketako sari banaketa; 14:30ean auzoko bazkaria Amartzeko txarangarekin; 18:00etan antzerkia; 19:30ean aureskua; 20:00etan sardina erreak, sagardoa eta musika Zelaia anaiekin.

Aisialdia

- **Ibarra.** Langostino Moto Festa: 09:00etan gosaria, 10:30ean moto irteera; 13:00etan itzulera eta 14:00etan bazkaria.

Antzerkia

- **Tolosa.** Amartzeko 12. Antzerki Astea: David Batlo (malabareak eta claquea) 18:00etan; Txefo ta Anduriñaren *Flamenkito* 18:20etan; eta Nanny Cogornoren *Jujurujaja* 19:00etan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Bronte C. I. Korreo kalea, 20. 943 67 6013.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Neurrira egindako kamisetak


TOLOSA ● Box.A arte elkarteak antolatuta *Ti-xer* kamiseta tailer irekia izan zen atzokoan Tolosan. Goizean Blami artistak hitzaldia eskaini zuen Kultur Etxean bere lan egiteko moduaren inguruko argibideak emateko. Bertan, berak eta beste bi pertsonak sortu duten Gora! marka berriaren inguruan ere hitz egin zuen. Arratsaldean, aldiz, kamisetak egiteko tailerra izan zen Berdura plazan. Bakoitza bere kamiseta eraman ahal zuen eta bertan biniloaren teknikaren bidez diseinu bereziak egin. Ez ziren gutxi izan gerturatu eta neurri-egindako elastikoak eskuratu zituztenak. E. EZBEA

A Agurrak



Urte askoan!
Udane Sarasola (Asteasu).

Biharko partez zorionak familia eta Migelen partez.



Zorionak!
Aitor Lopetegui Arrue (Tolosa).

Gaur 5 urte. Zorionak eta muxu asko asko etxeko guztien partetik.

urtebetetzeak - urrezko ezteiak
ezkontzak - jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak agurrak

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzan: Udaletxeko bulegoa

agurrak

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Asteunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P,K:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>